



KATIXA AGIRRE

Katixa Agirre (Gasteiz, Araba, 1981eko urriaren 27a) euskal idazlea da. Literaturaren, kazetaritzaren eta blogen arloetan dihardu. Haur literaturan ere hainbat lan kaleratu ditu.

Ikus-entzunezko komunikazioan doktorea da, eta EHU irakasle. Atzerriko hainbat unibertsitatetan ibili da ikerlari, baina egun Bilbon bizi da. 2007an argitaratu zuen bere lehen liburua, *Sua falta zaigu*, ipuinek edo istorio laburrek osatutakoa. Zutabegilea izan da Diario de Noticias de Alava, Deia, Aizu! eta Argia argitalpenetan kolaboratzen du. 2003an Ernestina de Champourcín poesia saria irabazi zuen, eta 2005ean Emakumeak Kontari ipuin-lehiaketa. 2007an Igartza Saria jaso zuen, hasiera hartan *Etxetik irten gabe* izenburua izatekoa zen ipuin-liburua idazteko; emaitza 2009ko otsailean argitaratu zuen, baina *Habitat* izenburuarekin. Horrez gain, umeentzako hainbat liburu ere idatzi ditu, *Paularen seigarren atzamarra*, *Ez naiz sirena bat, eta zer?* eta *Patzikuren problemak*. 2010ean, *Amaia Lapitz* saila hasi zuen, gazteentzako nobela sorta bat, Amaia Lapitz abenturazalearen istorioak kontatzen dituen. 2015ean bere lehenengo eleberria argitaratu zuen, *Atertu Arte Itxaron* (Elkar). 2018an etorri zen bigarrena, *Amek ez dute*.

Narrazioa

- *Sua falta zaigu*. (Elkar, 2007).
- *Habitat*. (Elkar, 2009).
- *Munduko sukaldaritza Euskal Herrian*. (Ttartalo, 2010).
- *Cocina del mundo en Euskal Herria*. (Ttartalo, 2010).
- *Cuisines du monde en Pays Basque*. (Elkar, 2010).

Eleberria

- *Atertu arte itxaron*. (Elkar, 2015).
- *Amek ez dute* (Elkar, 2018). 2016ko.

Haur eta gazte literatura

- *Paularen seigarren atzamarra*. (Elkar, 2007).
- *Ez naiz sirena bat, eta zer?*. (Elkar, 2009).
- *Patzikuren problemak*. (Elkar, 2010).
- *Amaia Lapitz eta erregina gorriaren hilobia*. (Elkar, 2010).
- *Amaia Lapitz eta Didoren ermandade sekretua*. (Elkar, 2013).

Sua falta zaigu / [Katixa Agirre](#) / Elkar, 2007

Sua falta zaigu Amaia Trejo Aldekoa / *Begitu*, 2020-03-17

Katixa Agirreren (Gasteiz, 1981) lehenengo liburua dogu hau, giza harremanak oinarri dituan zazpi ipuinez osotutako narrazio bildumea.

Sua falta zaigu izenburua dauan kontakizunak emoten deutso hasikerea liburuari. Istorio guztietatik personaia gazteenak ageri dira bertan. Nerabe bi ditu protagonista. Zigarroa erretako sua baino ez jakie falta eta berau lortzeako agure baten igurtziak onartzeko prest ei dagoz. Sasoi ausarta azaltzen da ipuin honetan, bizitzari bildur barik begiratzen deusan aroa.

Umezarotik helduarorako itzulera bako salto hau, danok gertuago edo urrunago gure barruan ondo gordeta daukaguna, askotan ekarten deusku gogora Katixa Agirreren liburu honek eta baita zelan eragiten dauan sasoi horrek etorkizuneko harremanetan eta harremanakazko gure begiradan.

Kontakizunetan aurrera egin ahala era askotako "faltak" agertzen doaz: desengainuak, harreman eraldaketak, hausturak, hutsuneak, huts egiteak... eta irakurleak antzeko bizipenetara bidaiatu egiten dau, bere urrutiko dezepzino, melankolia sentimentua azaleratuz. Gainera gertakizunak oso errealak dira, egunero edonon edonori gerta dakikeozanak, eta hasikeratik personiakaz bat egitea lortzean dau.

Lehenengo orrialdetik engantxatzen dauan irakurketa errazeko liburua da hau. Istorioen amaierak irakurlearen esku ixten ditu eta norberari emoten deutso aukerea personaia horreen etorkizuna eregiteko. Gerora Agirrek idatzi dauan *Amek ez dute* eleberrian legez ironia eta zorrotasuna gailentzen dira bere idazkeran, beti hizkuntza erraz eta hurbil baten.

Beti zerbaisten faltan gagozanok, badogu surik?

